

# Biniloaren taupadak

Bosgarren urtez, gurean dugu Elektronikaldia, Donostiako musika elektronikoaren nazioarteko jaialdia. Dena dela, urte osoan izaten da Donostian DJ-en musikaz gozatzeko aukera.



Orreaga Aranburu

**D**onostiako DJ mugimenduz hitz egi-terakoan, derrigorrez aipatu beharreko zenbait izen daude: Sirope Kolektiboa, Novophonic zigilua eta Etxekalte taberna, besteak beste.

80ko hamarkadan taberna askok disko

**Makala:**  
**«Duela lau urte musika elektronikoa tabua zen gurean»**

## Javi Pez, aitzindari

Javier Vicente 'Javi Pez' aitzindaria da Donostian musika elektronikoa bultzatzen. "Festetan hasi nintzen disko jartzaile lanetan. Geroago, 1993an, Sirope Kolektiboa sortu genuen hiru lagunek, dantza egiteko musikaren ispiritua sortzeko", azaldu digu.

Aurretik, hainbat taldetan ibilia zen Javi Pez: Ojos de Pez eta En el Jardín, besteak beste. DJ gisa, musika sortzea du gustuko. Ildo honetatik, era askotako hainbat proiektu dituzte Novophonic zigiluan. Digi Onz-en, adibidez, orkestra handi batek ki-

rolekin lotutako ikuskizuna sortzen du. Bestalde, Instrumental proiektuan, Ibon Errazkinekin elkarlanean dabil Pez.




jartzaileak zituzten arren, garrantzi gutxi ematen zitzairen. Askotan, tabernariak arduratzen ziren musika jartzeaz, eta ez zuten, orain bezala, ezizena erabiltzen.

AEBetan, Ingalaterran eta Alemanian, elektronikaren kulturarekin lotura handia zuten musika mugimenduak sortzen hasi ziren 90eko hamarkadan. Rocka edo popa elektronikoarekin nahasten zituzten proiektuak sortu ziren eta disko jartzailearen figura ere sortu zen.

### Sirope eta Novophonic

Donostiara geroxeago iritsi zen DJen giroa. Mari kaleko Etxekalte-Kluba izan zen musika saioak programatzen aitzindarietako bat, Sirope Kolektiboari esker. Sirope Kolektiboa 1993an sortu zuten Javier Vicente 'Javi Pez'-ek, Loreak Mendianeko



## Diskoak jarri eta saldu

Luis Beltza-k *"ia bizitza osoa"* darama disko jartzaile gisa. *"Hasieran, Donostian ez zegoen DJ mugimendurik eta beste toki batzuetan ibili behar nuen"*, azaldu digu. Egun, ordea, *"Los que es-*

*tán"* Kolektiboak DJ saioak antolatzen ditu ostiral eta larunbatetan Egiako Bukowski tabernan; Luis Beltzak saiootan parte hartu ohi du.

Horrez gain, Beltza Records denda ezaguna du Parte Zaharrean, Old School (eskola zaharra) motako musika jarri

ohi dutenentzako erreferentzia. *"Duela hamahiru urte ireki nuen denda. Egia esan, orain horretatik bizi naiz, DJ gisa ez baita dirurik ateratzen"*, dio Luis Beltzak. Reggaea, soula... Beltza Recordsen musika beltza aurki daiteke, batik bat, izenak berak dioen bezala.


Xabi Zirikiainek eta Jon Izetak. El Muro eta Be Bop tabernetan jaiak antolatzen hasi ziren, 1995. urtean Etxekalten finkatu ziren arte. Javi Pez izan zen mugimendu hartako arduradun nagusia.



Beraz, Donostiako DJ mugimendua 90eko hamarkadaren erdialdean hasi zen sendotzen. 1994an Javi Pez-ek eta Txarly Brown diseinatzaile eta disko jartzaile katalanak Novophonic zigilua sortu zuten. Handik bizpahiru urtera Mikel Unzurrunzaga 'Makala' zarautzitarra batu zitzairen.

Esan bezala, 1995ean Etxekalte tabernan finkatu zen Sirope Kolektiboa eta as-tebururo saioak antolatzen hasi ziren. Betidanik, Etxekalte Donostiako dantza klub nagusietakoa izan da, eta azken urteetan DJ ezagunak aritu izan dira bertan. Javi Pez eta Makala dira, gaur egun, Etxekalteko programatzaileak.

Ostegun, ostiral eta larunbatetan, gauerdetik aurrera, hainbat estilotako DJak aritzen dira: Pez, Mario Ma-



queda, Makala, Araña, Chico, Kigo eta abar.

laz, baina, Siropek helburua lortu zuenez eta hainbat kidek beste bide batzuk hartu zituztenez, kolektiboa desegin zen.

Egun, beraz, Javi Pez, Makala eta Txarly Brown ditugu DJ mugimendua sustatzaile nagusiak Donostian, Novophonic zigiluarekin; hamar urte hauetan, hamabost proiektu nagusi kaleratu dituzte.

### Beste lokalak

Hala eta guztiz ere, badira gurean mota honetako saioak antolatzen dituzten beste zenbait toki. Bataplan diskotekan eta Kandela tabernan, esaterako, DJ festak egin ohi dituzte.

Erdialdeko Udaberri eta Pochhara tabernetan ere DJak izaten dituzte astebukaeretan. Udaberrin, Pedro Destinok jartzen ditu diskoak. Pochharan, berriz, disko jartzaileak aldatzen dituzte. Saio hauek ostiral eta larunbatetan izaten dira 23.00etik aurrera.

Egiako Bukowski-n *"Los que están"* Kolektiboak antolatzen ditu musika saioak, ostiralero eta, batzuetan, baita larunbatetan ere. Batik bat,

reggaea, funkya eta soula entzun daitezke Bukowski: 60 eta 70 hamarkadeetako musika jartzen dute, beraz, bertan aritzen direnek, nahiz eta zenbaitetan egungo musikari ere tartea egin. Ostiral eta larunbat honetan, hilak 10 eta 11, adibidez, Soul Festa egingo dute Egia kaleko Bukowski tabernan; bertan arituko dira Luis Beltza donostiarra eta Bartzelonako Lula.



## Asteburu honetan Soul Festa egingo da Bukowskin

### Etorkizuneko izarra

lñigo Elozegi 'Kigo' duela bost urte hasi zen DJen munduan murgiltzen. Gaur egun badira DJ gazteagoak, baina garai hartan bera zen gazteena. "Batez ere, bi gauzek bultzatu ninduten musika elektronikoaren mundura. Benicassim-go jaialdian, Chemical Brothers eta Orbital taldeen kontzertuetara joan eta liluratuta geratu nintzen. Horrek musika elektronikoarekiko interesa piztu zidan eta Etxekalte-n Si-rope Kolektiboaren festetara joaten hasi nintzen. Orduan, diskoak jartzeko benetako gogoa piztu zitzaidan", kontatu digu.

Prozesua nahiko azkar joan dela esan digu. "Ekipoa oso garestia denez, mailegua eskatu eta platerak erosi nituen. Ondoren, diskoak erosten hasi nintzen Hobby Diskak-en. Bertan Pedro Destino DJa ezagutu nuen, eta erosten nituen diskoak gustuko zituenez, Etxekalten parte hartzeko gonbitea egin zidan. Berari esker hasi nintzen honetan". Egun, hainbat tokitan aritzen da lñigo, baina musikaz bizitza oso zaila dela dio.

### Elektronikaldia

Dantzarako kluba eta disketxea behin finkatuta, jaialdia egitea otu zitzaien Si-ropeko lagunei. "Gu beti gonbidatzen gintuzten Sonar eta bestelako jaialdi-etara diskoak jartzeko. Donostiak ere jende-ari kultura elektronikoa erakusteko jaial-ditxo bat merezi zuela pentsatu ge-nuen," azaldu digu DJ Makalak.

Hala, Javi Pezek jaialdia egitea propo- zion Gintonic produkzio bulegoari.

1999an egin zen lehen jaialdia.

Aurtengoa, beraz, bosgarrena izango da. "Oso pozik gaude orain arteko emaitzekin eta garapenarekin. Hau ez da hiri handia, eta, beraz, gure neurrira moldatu behar dugu, ez baitugu jaialdi handi bat egiteko asmoa", azaldu digu Makalak.

Elektro- nikaldiko gauetan, dan- tza egiteko erritmo alaiak programatzen saiatzen direla dio zarauztarrak. "Ez gara techno-ra



mugatzen, musika beltzaren eragin han- dia dugu eta; Londresen sortutako estilo asko dago, musika beltza elektronikoare- kin nahastua". Egunez, ordea, arlo espe- rimentala lantzen dute, jendeak lasaiago eta patxada handiagoaz goza dezan. "Ezustekoz beteriko ekitaldiak izaten di- ra egunez egindakoak; finean, sentsazio- ak sortzea da musika elektronikoaren muina".

### Donostia Elektronikoa


Duela hiru urte, bestalde, jaialdian ber- tan, Donostia Elektroni-

koa lehiaketa sortu zuten, Donos- tia Kultura- ren lagun- tzarekin, gazteen arte- an sorkuntza bultzatzeko.

Hala, Kursaa- lean Donostia Aretoa izeneko gunea ireki zu- ten. Gainera, lehiaketako zortzi irabazleekin, ma- keta bat ateratzea erabaki zuten. Ha- sieran, baina, jende gutxi animatu zen

parte hartzera. "Oso proposamen gutxi jaso genituen hasieran; lehendabiziko ur- tean hamabost lan inguru jaso genituen eta haietatik, zortzi irabazle aukeratu genituen. Aurten, aldiz, 60 lan baino gehiago jaso ditugu. Horrek erakusten du gero eta jende gehiago ari dela musika elektronikoa egiten; primerakoa da", dio Makalak.

Donostiako zein kanpoko jendeak parte hartzen du lehiaketan. Dena dela, gehien- tsuenak Euskal Herrikoak dira. Makalak



## Elektronikaldiko egitaraua

### Ostirala 10

#### Gaztemaniak Gaua

Sarrera: 6 euro

#### Chill On aretoa (Gazteszena)

- 23.00-01.00 Asier Leatxe (Arrasate)

- 01.00-03.00 Ertz (Bera)

Soundcheck

Martiko eta Garate

Irazoki, Telletxea & Erkizia Trio

#### Areto Nagusia (Gazteszena)

- 00.00-01.30 Schneider TM (Berlin)

- 01.30-03.00 Farben (Berlin)

### Larunbata 11

#### E-aldia eguna

Sarrera: doan

Elektronikaldia aretoa (Kursaal)

- 18.00-19.00 Un caddie renversé dans l'herbe (Bartzelona)

- 19.00-20.00 Khön (Belgika)

- 20.00-21.00 Modeselektor (Berlin)

- 21.00-22.00 Jan Jelinek (Berlin)

#### Donostia aretoa (Kursaal)

- Donostia Elektronikoa 2003 lehiaketako irabazleak

12.00-13.00 Gris (Donostia)

13.00-14.00 Mondeju (Tolosa)

17.00-18.00 DJ Mibor (Zaragoza)

18.00-19.00 Unno (Zarautz)

19.00-20.00 Imanol Costas (Donostia)

20.00-21.00 Tüsuri (Orereta)

21.00-22.00 C.B. (Donostia)

Disko eta argitalpen azoka (Kursaal)

ä.d.n., Amaste-Esete magazine, Beltza Records, Doleku.com, Entzun aldizkaria, Era magazine, Gaztemaniak, Old School shop, The balde...

#### Aurkezpenen aretoa (Kursaal)

- 12.00-13.00 Mondeju

- 13.00-14.00 9DCR

- 16.00-18.00 Ixi software

- 18.00-19.00 Logela multimedia

- 19.00-21.00 Foyu

#### Internet txokoa (Kursaal)

### E-aldia gaua

Sarrera: 18 euro

#### Chill On aretoa (Gazteszena)

- 23.30-02.15 Ibon Errazkin (Donostia)

- 02.15-05.00 Josetxo Anitua (Bilbo)

#### Areto Nagusia (Gazteszena)

- 00.00-02.00 DJ Food (Londres)

- 02.00-06.00 Co Op jaia

Dejo "4 Hero"

Afronaught "Bugz in the attic"

Ig Culture "New sector movements"

### Igandea 12

#### Arteleku Eguna

Sarrera: doan. 18.00-20.00

Audiolab: Francisco Lopez



diorenez, "hori eskertzekoa da, duela lau urte hemen musika elektronikoa egitea tabua zen eta". Euskal Herrian, betidanik, "euskal rock erradikala" eta punka izan dira nagusi, baina azkenaldian, DJ kultura ere hazten ari dela dio Makalak.

Euskal Herrian, beraz, gero eta jende gehiago ekipoa eta diskoak erosi eta tabernetan edota dantzaleketan musika jartzen ari da. Erreportaje honetan ikusi dugunez, Donostia ez da salbuespena: DJak, tabernak, festak... Biniloez josita

baitago Donostia. Eta Elektronikaldian inoiz baino nabariagoa izango da biniloen arrakasta.

## Buenawistako rocketik CarlosDmariara



Buenawista gunean rocka joaz ekin zion Txarlyk musika ibilbideari. 1991n hasi eta hainbat taldetan aritu zen ondoren. Bateria ikasi zuen arren, beste hainbat tresna ere jotzea egokitu zitzaion.

"Buenawistan denetariko jendea zegoen, eta lagun batzuk bakailao musika jartzen hasi ziren. Pixkanaka interesa sor-


tu zitzaion, eta gitarra eta bateria platerengatik aldatu nituen". Oso mundu zabala topatu zuen Txarlyk. Orain, San Bartolomeko Goa klubean aritzen da diskoak jartzen, CarlosDmariara ezizenarekin. Musikatik bizitzea zaila den arren, horretan saiatzen da, musika-ekin zerikusia duten bestelako lanak bilatuz.

DJ-en saioetara joaten al zara?



**Josetxo Sanchez**  
Hernani

**E**z. Nik musika elektronikoa batez ere dantzalekuetan jartzen dutenarekin lotzen dut, eta ez dut gogoko. Uneoro gauza bera errepikatzen ari dela iruditzen zait.




**Oihane Sudupe**  
Zumarraga

**Z**umarragakoa naiz eta herriko tabernetan ez da oso ohikoa DJ-ak ikustea. Agian, horrexegatik ez nau erakartzen musika mota horrek.



**Kuben Ormazabal**  
Parte Zaharra

**N**ormalean ez. Hala ere, dantza egiteko nahiko musika proposa dela uste dut. Etxean entzuteko, berriz, beste musika mota batzuk nahiago ditut.



**Yolanda Oviedo**  
Intxaurren

**P**arte Zaharrean eta Ilunben DJ-ak dituzten tabernetara maiz joaten naiz. House-a, progressive-a... Mota askotako musika jartzen dute taberna horietan.



**Iñaki Goenaga**  
Parte Zaharra

**E**z. Dena dela, behin, Hernaniko txosna batean, hip-hop-a jartzen ari ziren DJ batzuk eta gustatu egin zitzaidan.



**Alama Fernandez**  
Parte Zaharra

**O**rain arte, ez Abuztuari, baina, Aste Nagusian Kurasaaleko terrazan izan nintzen DJ-ak ikusten eta gustura ibili nintzen.

[www.megadenda.com](http://www.megadenda.com)

**bilintx**      **ramos**

Jai egunetan zabalik

**Megadenda**  
zure aukera musika eta liburutan